

Somali ta Etiopia'ren arteko asarrea

Erabaki gabeko mugak "Somali aundiaren" ametsa

O.U.A.'ren erabaki bat.


Etiopia'ren gainean zerbait esan bearko da aurrerago ta komeni da orregatik Addis Abeba'tik astea, 1963'gn. asieran Afrika'ko zuzendari guztiak an arkitu ziran bilduta Afrika'ren prolema-ko estudiatu ta batasunari ekitoko antolaketa bat sortzeko. Antolaketa ori sortu zuten eta O. U. A. (Afrika'ko Batasunaren Antolaketa) izenekoa sortu zuten. Ta, jakiña, antolaketa orrek bere bide, neurri ta erabakiak bear zituan sortzerakoan eta, bear bezela, eman zizkioten afrikater zuzendariak. Erabaki oietakoan artean bat au izan zan: alegia, elkarren arteko mugak etzirala ikuituko, europarrak utzi zituzten bezela onartuko zituztela mugak auea.

Entzun dira mugak ezin konpondu eta zalaparta aundi xarabaki orren arrazoia. mar batzuek Afrika'n Addis Abeba'ko erabakia artu zanean Algeri ta Maroc'en arteko guda txikia zegoan gogor-gogorrean. Geroztik, eta egun auetan maiz, Etiopi ta Somalia'ren artekoak entzun ditugu. Oietzaz gainera esan ditek sortu diran estadu ta nazio geienak, danak ez baldin badira ere, dituztela prolema-kin gai onetaz. Auzokoekin sortzen zaizkien goraberak, lu-

rralde batzuek bereganatu naiean edo jendetza batzuek menderatu naiean. Izan ere europerrak Afrika'ra joan ziranean

turari edo errazari begiraturik eman gabe. Mugak erabakitzerakoan etzuten orrelako gauzetan pentsatzen europarrak denbora

rik. Arabetarrek dira lurralde auetako geienak eta asko ta asko ta asko nomadak, alde batetik bestera dabilzanak, bizileku jakirik ez dutenak. Somalitarren erraza berdiñekoak, erlijio berdiñekoak bizi dira Etiopi'ak dauzkan zati batzuetan eta Kenya'ren menpean dauden zati batzuetan ta oiek dira Somalia'k eskatzen ditunak «Somalia Aundia» somalitar guztiak osatutako bat sortzeko. Ta ori Somalikoak bakarrik ez erlik Kenya ta Etiopia'n bizi diran anaiak, erraza ta erlijio berdiñekoak diranak, ere somalitarrek izan nai dute ta ez kenyatarrek edo etiopitarrek. Orrezaz gainera lenago esan bezela jende oiek, geienak, nomadak dira ta, esate baterako Kenya ta Somalia'ren artean dauden mugak erabakitzea oso zaila da, jende oiek batetik bestera oso errez pasatzen diralako, arrazoi guztiarekin ez baidituzte mugak ezagutzen.



eta Afrika'ko lurraldeak zatitu zituztenean, zatitetak egiterakoan etzieten eta batere begiratu sortzen zituzten batasun berriak arrazoirik ba zuten edo ez kul-

geiegi galdu.

Orregatik Afrika'ko estadu berrien artean asko dira batez ere mugen aldaketetan zerbait galdu lezatekenak, eta orregatik mugak ikuitu ere nai ez dituztenak, lenago zeuden bezela jarraitzea nai dutenak, eta oiek izan ziran euren iritzia ezarri zutenak Afrika'ko Batasun Antolaketa'ren oiñari nagusi-entako bat bezela. Ori zala ta etiopitarrek pozik gelditu ziran, baño etgiran somalitarrek iritzi berdiñekoak. *Esku askotan eta zati askotan egondako Somalia.*

Zatirik aundientakoa italiarrak eduki zuten aspalditik munduko bigarren gerratea bukatu arte. Zati bat ere bai egona da ingelesen eskuetan eta oraindikan bada beste bat frantzesen eskuetan dagona. Zati oiek nola al bait bildu ta eman zitzaion Somalia izeneko Errepublikari, Mogadiscio'rin uri-burua zuala-

MUNDUAN ESATEN DANA

Temoignage chretien

Errusi'ko kristauen ezbeurrak ez ditzagun esplotatu

Gure deia ez da kapitalismoaren defenditu naia. Errusi'ko kristauen nekeak ez dira gure burrukarako tresna batzuek bezela. Jainkoak nai dezala kristau oien nekeak, «siñis-menaren martiriak» deitzen diegunen nekeak ez esplotatzea: «komunisten mundua zero txarra da, nik esan nizuen. Ikus zazue nola ekiten duan kristauen kontra». Ara nola azaldu ditekien poz txar —eta zein zikiña— gure artean. Nai ezta ere miñ artuko genduke aiek askatasun osan bizitzea: izan ere gero-nen bizimodua sendotzeko aien nekearen bearra baide-gu...

Le Monde

Brasil'go ejerzitua

Izan ere Brasil'go ejerzitua, naiz eta lege barruan jarduteko oitura oraindikan indartsua izan, ez du antz aundirik ego-ameriketako beste ejerzitu-ekin, ez da orregatik Brasil'go politikaren zer ikusirik gabe gelditzen: politikaren zuzendariak eñ dezateke ejerziturik gabe, baiñan eziñ dezateke ezer ejerzituaren kontra edo ejerzituko buruen kontra.

NAZIO-ARTEKO UNEA

BRASIL: Munduan nazio katolikuen

BAI orrela da, numeroei begiratzen baldin badiegu; izan ere ez da beste estaturik, naziorik munduan ainbeste katoliku ditunik. Ea irurogei milloi dauzka ta. Orañ katoliku oiek zenbaterano diran kristau galdetzen baldin badidate erantzuten enuke jakingo, ez bada ori neurtzea erreza.

Katolikuetan ugarien baldin bada, ego-ameriketako estaden artean aundiena ere bada, lurrez, bizilagunez eta indarrez. Eta prolema ere baietz esango nuke. Erreboluzioaren bidez, era bateko edo besteko erreboluzioaren bidez, paketsu edo sutsuaren bitartez bakarrik konpondu ditezkie prolema dauzka. Eta or dago kokxa. Bearrezkoa erreboluzioa, baiñan erreboluzioan galdu dezaken jendea indartsua. Badirudi oraingoan ere auek atera dirala berearekin. Baiñan noiz arte? Gauzak konponduko al dituzte? Ez det uste.

Brasil'en badira lurralde batzuek gosiaren lurraldeak deitzen zaletenak. Eta asko dira goseak iltzen daudenak. Demographia ugari, gero ta gero bizilagun gelago, erdi azitako nazioa ekonomiarik dagokionez, aberastasuna oso gaizki banatua..., ez nitzake batere arrituko egunen batean erreboluzio gogorra lertuko balitzake re.

Baiñan, jakiña, gauzak gogor esaten dituztenak eta gogor, sakon sakonetik konpondu nai dituzten guztiak komunistak dira, castro-zaleak dira. Gutxienean ori da koserbadoreak eta dirudunak esaten dutenak. Eta gaiñera demokraziaren defenditzaile aundienak dirala diote bere buruatzaz konserbadore oiek. Baiñan demokrazi politikoa ezertarako bailo al du. Demokrazi ekonomiko gabe? Bakar bakarrik bigarrenari bidea prestatzeko, baiñan ez det uste dirudunak eta kapitalistak ortarako gogo geiegi daukatenik. Gaiñera ipar-ameriketarrak ere gogoan eduki bear ditugu. Bildurrak aidean daude ego-ameriketako nazioaren batean Cuba'n bezela erreboluzioaren bat sortuko ote dan edo, ta batez ere bildur ori Brasil'en dute. Eta aspalditik ontan leno Brasil'go gobernuarekin asarre ziran. Jakiña ipar-ameriketarraren kapitalekin osatutako lantegi batzuek nazionalizatu zituzten eta...

ARREGITAR RIKARDO'K

Ale
baka-
rra
2.50
pezta

"FUNCOR" S. C. I.

Benetako baserriarrak bear dituzten MAKINAK:

BIRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizun'k'onenak, emengo nekazarientzat.

Adi ta oroi ezazu.

"FUNCOR"

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO

Vizcaya 114